

Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren potentzialtasunak eta praktikak: nazioarteko ikuspegia



Jorge Gutiérrez Goiria (zuzendaria)
Andrés Fernando Herrera
Iratxe Amiano
Irati Labaien

Eduardo Malagón
Ignacio Martínez
María José Martínez
Unai Villena

Azterlan honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren finantzazioa izan du. GIU 21/011 Ikerketa Taldearen Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Politiken Koherentziari buruzko lanaren barruan dago (Hegoa Institutua, UPV/EHU).



Talde erredaktoreak eskerrak eman nahi dizkie Koldo Uncetari, Idoye Zabalari eta Michel Sabalzari, ikerketa honen abiapuntu den talde-ibilbide osoan egindako ekarpenengatik.

Garapenerako lankidetzak deszentralizatuaren potentzialtasunak eta praktikak: nazioarteko ikuspegia

Jorge Gutiérrez Goiria (zuzendaria), Andrés Fernando Herrera, Iratxe Amiano, Irati Labaien, Eduardo Malagón, Ignacio Martínez, María José Martínez, Unai Villena

2022



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU • Zubiria Etxea Eraikina
Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Arabako Campuseko Liburutegia
Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

Euskerazko itzulpena: Bakun, S.L.
Diseinua eta maketazioa Marra, S.L.
ISBN: 978-84-16257-93-5



Argitalpen hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau koptatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili.

Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

Irudien aurkibidea	4
Taulen aurkibidea	4
1. Sarrera	5
2. Testuingurua: garapenerako lankidetza deszentralizatua	8
2.1. Lankidetza deszentralizatuaren jatorria eta kontzeptua	9
2.2. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren potentzialtasunak	13
2.3. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren mugak	15
2.4. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren gaur egungo garrantzia	16
3. Munduko lankidetza deszentralizatua: ikusitako zenbait ezaugarri eta eztabaida	19
3.1. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren egokitasuna	20
3.2. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren garrantzi kuantitatibo mugatua	21
3.3. Eragile inplikatuaren eta lan-ildoaren aniztasuna	23
3.4. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren tresnak	28
3.5. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren jarduera-sektoreak	33
3.6. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren orientazio geografikoa, funtsen banaketatik abiatuta	37
3.7. Koordinazioa garapenerako lankidetza deszentralizatuan	41
3.8. Kontuak ematea eta gardentasuna garapenerako lankidetza deszentralizatuan	44
4. Ondorioak eta etorkizuneko ildoak	47
5. Bibliografia eta testuan aipatzen diren web orriak	52
6. Eranskina. GLDk GLO deszentralizatuari buruzko informazioa emateko erabiltzen dituen eragileak eta kodeak	58

Irudien aurkibidea


1. irudia.	GLO deszentralizatuaren fluxuak 2015ean eta 2019an (milioika dolar, grant equivalent)	17
2. irudia.	GLO deszentralizatu, erakunde bideratzaile motaren arabera (2019)	27
3. irudia.	GLO deszentralizatu, tresnen arabera (2019)	32
4. irudia.	GLO deszentralizatuaren fluxuak sektoreen arabera, ikasleei egotzitako kostuak eta herrialde emaileetan errefuxiatuei ematen zaien laguntza kenduta 2019	36
5. irudia.	GLO deszentralizatu kontinenteen arabera, ikasleei egotzitako kostuak, errefuxiatuenak, eta geografikoki esleitu gabeko funtsak kenduta (2019)	39
6. irudia.	GLO deszentralizatu herrialdeen sarrera-mailen arabera, kasleei egotzitako kostuak, errefuxiatuenak, eta geografikoki esleitu gabeko funtsak kenduta (2019)	40

Taulen aurkibidea

1. taula.	GLO fluxuak herrialde emaileen arabera 2019an	23
2. taula.	Munduko GLO deszentralizatu, erakunde bideratzaile motaren arabera (2019)	26
3. taula.	Munduko GLO deszentralizatu, tresna motaren arabera (2019)	29
4. taula.	GLO deszentralizatu, GLB sektoreen arabera (2019)	34



1. Sarrera



Garapenerako nazioarteko lankidetzaren birplanteamendu betean dago parametro nagusiei dagokienez (helburuak, eragileak, tresnak...), arazo globalek zalantzan jartzen baitituzte lankidetzaren sistema tradizionalaren oinarriak eta ikuspegia.

2030 Agenda, mugak dituen arren, anbizio handiko esparrua da lortu nahi diren helburuei dagokienez, eta aukera ematen du ingurumenean, gizartean eta ekonomian kutsu autosuntsitzailea duten dinamika globaletan aldaketak sustatzeko. Agenda horren helburuak handiak direnez, maila anitzeko ikuspegia izan behar dugu ezinbestean, eragile anitzekoa eta integrala, eta funtsezko faktore bihurtu behar dugu lankidetzaren. Hala ere, gaur egungo nazioarteko lankidetzaren sistema ez da nahikoa eginkizun horretarako, eta alternatiba edo ikuspegi berriak behar dira arlo horretan aurrera egiteko.

Modu apal baina gero eta handiagoan, lankidetzaren eta elkartasun-harremanak horizontaltasun eta elkarrekikotasun handiagoz sustatzeko gai den praktika gisa planteatzen da garapenerako lankidetzaren deszentralizatua (GLD), hainbat eragile inplikatu eta herritarrengandik hurbil dauden arazoei nahiz arazo sistemiko eta estrukturaleri erantzunez, estatuz azpiko eremuetatik.

Hala ere, badirudi praktika horiek askotan ez dutela beren potentziala aprobetxatzen, beren harremanen hedapenari dagokionez, edo beren gaitasun teknikoak partekatzeari dagokionez, eta sakon eraldatu den errealitate batek gainditutako eskemak erreproduzitzera mugatzen dira batzuetan.

Horren harira, azterketa honen helburua da GLDren praktiketan nazioarteko ikuspegiarekin sakontzea, praktikan dituen ezaugarri nagusiak identifikatzeko eta dituen indarguneak eta potentzialtasunak aprobetxatu ahal izateko. Era berean, saiatu gara identifikatzen estatuko esparruek eredu bereziak sortzen laguntzen duten eta praktika horiek nola lagun ditzaketan.

Hala, kasu zehatzetan zentratuago dauden beste azterlan batzuk osatu nahi ditugu, ikuspegi orokorra eta konparatiboa emanez. Ikuspegi horrek, dituen mugekin jakina, giltzarri batzuk erakusten ditu praktika horietan aurrera egiteko. Horretarako, ikuspegi mistoa erabili dugu, kuantitatiboa eta kualitatiboa, hainbat iturri konbinatuta.

Alde batetik, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) datuak aztertu ditugu, 2019. urtekoak (pandemiaren balizko eragin desitxuratzailaren aurretik), haien sailkapen nagusiak barne. Datu horien interesak, homogeneizazioagatik ikuspegi konparatua eman arren, ez ditu ezkututzen, ordea, fenomeno hori aztertze mugak. Garapenerako


Laguntza Ofiziala (GLO) neurtzeko GLBren diseinua ez zen praktika horietan pentsatzen egin, eta, ikusiko dugun bezala, horrek zaildu egiten du oinarri horretatik abiatuta ondorio sendoak lortzea.

Bestalde, lankidetzaren deszentralizatuari buruzko aurretiazko azterlanak aztertu ditugu, bai iturri akademikoak bai nazioarteko erakundeak, batez ere azterketa konparatiboei erreparatu (Copsey eta Rowe, 2012; Fernández de Losada et al., 2013, 2018; Kania, 2020, 2021; ELGE, 2018, 2019; Pérez, 2018; Valmorbidia, 2018; Dali et al., 2019). Bost herrialdetan sakondu dugu, dituzten garrantzi kuantitatiboa eta ibilbideak kontuan hartuta, ikuspegi hurbilagoa izateko: Alemania, Kanada, Espainia, Frantzia eta Belgika.

Hegoa Institutuko (UPV/EHU) Nazioarteko Lankidetzarako eta Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko ikerketa-taldearen ibilbide luzea jarraitzen du argitalpen honek. Esparru horretan, garapenerako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko hainbat argitalpen daude (ikus, adibidez, Unceta et al., 2011, 2012, 2013; Gutiérrez-Goiria et al., 2012; Amiano et al., 2014; Labaien, 2014; Martínez, 2021; Martínez eta Venegas, 2016; Villena, 2021).



2. Testuingurua: garapenerako lankidetzazentralizatua



Garapenerako lankidetza deszentralizatuak ibilbide ondo finkatua du dagoeneko nazioarteko lankidetzan, eta lankidetza modu berrietarantz eboluzionatzen joan da. Horren harira, ezaugarri bereizgarriak ditu lankidetza-mota horrek, bere potentzialtasunekin eta bere mugekin.

2.1. Lankidetza deszentralizatuaren jatorria eta kontzeptua

Garapenerako lankidetza: haren hasierako planteamendutik 2030 Agendara

Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen garapenerako nazioarteko lankidetza. Munduko leku askotan gabezia ugari zeudela ikusi zen, kontraste handia sortzen zutenak *herrialde garatu*en edo *industrializatu*en egoerarekin konparatuta. Hori zela eta, nazioarteko lankidetza-sistema sortu zen, nazioarteko erakunde ugari (Nazio Batuen agentziekin hasi eta ELGEn Garapenerako Laguntza Batzordearekin buka) eta agentzia nazionalek osatua.

Hala, pobrezia bezalako arazoak konponduko zirela espero zen, eta,aldi berean, herrialde batzuen eta besteen arteko tartea murriztu egingo zela. Esparru horretan, Garapenerako Laguntza Ofizialak, transferentzia-sistema gisa, eginkizun nagusia zuen, eta egiturazko aldaketak sustatzeko katalizatzaile gisa balioko zuela uste zen.

Jakina denez, denbora igaro ahala ikusi zen arazoak askoz era konplexuagoak eta globalagoak zirela, eta konpontzetik urrun zeudela mundu mailako gabeziak eta desberdintasunak.

Lehenik eta behin, proposatutako ereduak ez zituen aintzat hartzen interdependentzia ekonomiko eta finantzario globalaren gako nagusiak. Nazioarteko merkataritza, zor-arazoak edo atzerriko inbertsio-prozesuak eta haien funtzionatzeko moduak eta asimetriak, funtsezko baldintzatzaileak ziren garapen-prozesuetan. Geroago, hainbat arazo globaletan sakondu zuten korrante neoliberalak, eta, adibidez, finantza-aldakortasuna gehitu zieten aurreko arazoei. Arazo horien guztien ondorioek nabarmen gainditzen dituzte planteatutakoa bezalako lankidetza-sistema batek izan zitzakeen eraginak.

Bigarrenik, joan den mendeko 70eko hamarkadaren hasieran, jada planteatzen zen errenta handieneko herrialdeen eredu jasanezina zela ingurumenari dagokionez (Meadows et al., 1972), eta, beraz, ezin zela unibertsalizatu. Horrek, jakina, planteatutako garapen-eredua errotik zalantzan jartzera eramango zuen, eredu hori berrikusi beharra baitzegoen jasagarria izan zedin.

Hirugarrenik, hazkunde ekonomiko handia gertatzen ari zen lekuetan ere, ez ziren konpondu langabezia-, desberdintasun- edo pobrezia-arazoak, eta arazo horietan sakondu beharra zegoen.

Gai horiek, eta generoaren berdintasunarekin, instituzionaltasunarekin, giza eskubideekin eta abarrekin lotutako beste batzuek, eztabaida konplexuagoak eragin dituzte garapenaren prozesuei eta baldintzatzaileei buruz, bai eta garapenaren kontzeptuaren (giza garapena, garapen jasangarria...) beraren hainbat proposamen ere, edo garapena bera zalantzan jarri ere egin da helburu gisa¹.

Ibilbide horretan guztian sakontzeko asmorik gabe (dokumentu honen helburua gainditzen baitu), garrantzitsua da 2030 Agendari erreparatzea, indarrean dagoen planteamendu gisa eta Nazio Batuen esparruan ia herrialde guztiek berretsitako planteamendu gisa.

2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) nazioartean garapenaren arloan egindako proposamenik handinahiena izango da seguruenik, eta pobrezia, hezkuntza, osasuna, jasangarritasuna, desberdintasunak, segurtasuna... hartzen ditu bere baitan. Agenda hori ez da Milurtekoko Garapen Helburuen jarraipena, askoz ere apustu integralagoa baizik; izan ere, giza garapenaren eta garapen jasangarriaren agendak biltzen ditu, betidanik paraleloan ibili izan direnak, baina elkarrekintzarik gabe euren artean.

Hala ere, arazoak ditu 2030 Agendaren proposamenak. Horien artean, honako hauek aipa daitezke: loteslea ez izatea eta inplementatzeko bitartekoen ahultasuna, helburuen artean erlaziorik ez izatea eta batzuetan talka ere egitea (adibidez, hazkundearen eta lan duinaren 8. GIHren eta ingurumen-orientazioko beste batzuen artean), edo egungo garapen-eredu nagusiaren elementu sistemikoak aldatzeko behar den sakontasunik eza. Horrek guztiak ziurgabetasuna sortzen du Agenda horrek egiaz duen eraldatzeko gaitasunari eta bideragarritasunari dagokienez.

Hala eta guztiz ere, ekintza globalerako dei gisa erabil daiteke Agenda hori, orain arte indarrean egon denaz bestelako ikuspegiarekin.

Azterlan honi dagokionez, garrantzitsua da nabarmentzea, lehenik eta behin, 2030 Agendak eta GIHeK mota guztietako herrialdeei eragiten dietela, horrela herrialde garatuen/garatu gabeen dikotomia hautsiz.

1 Unceta et al. (2021) egileek errepasso sakona egiten dute garapen eta lankidetzaren arloetako bilakaera horren inguruan.

Bestalde, argi dago GIHeK nazioarteko lankidetzaren ekintza-eremua zabaltzea eskatzen dutela, hainbat arazo globali aurre egiteko (adibidez, klimaren aldeko ekintza edo bestelakoak). Garapenerako Laguntza Ofizialaren jarduerak alde batera utzi gabe, bistan da ez hori ez nazioarteko egungo lankidetzaren sistema ez direla aski planteatutako erronkei erantzuteko. Garapen iraunkorrerako politiken koherentzia sustatzeko beharra iradokitzen da hemen, politikak, oro har, bideratzeko tresna gisa.

Tokian tokikoaren protagonismoa ere garrantzitsua da, aurreko proposamenekin alderatuz gero. Hiri eta komunitate jasangarriari buruzko 11. GIH sartzeak berak adierazten du espazio horiei ematen zaien garrantzia. Horri dagokionez, maila anitzekoa da 2030 Agenda, eta nazioarteko lankidetzaren esparruan eremu, eragile eta helburu berriak txertatzeko beharra azpimarratzen du.

Lankidetzaren deszentralizatua garapenerako lankidetzaren esparruan

Garapenerako nazioarteko lankidetzaren estatu-esparruetan oinarritu izan da tradizionalki. Hala ere, eta nazioarteko beste gune batzuetan gertatu den bezala, eskualdeetako, hirietako eta estatuz azpiko beste gune batzuetako gobernuen esku-hartzeak gero eta garrantzitsuagoak izan dira azken hamarkadetan.

Garrantzi handiagoa izate horren arrazoiak dira hiriek gero eta pisu handiagoa izatea biztanleriari eta ekonomiari dagokienez, hainbat lekutan izaten ari diren deszentralizazio politiko eta administratiboko prozesuak (zenbait zerbitzu gertutik kudeatu beharra dakarte horiek), edo eragile horietako batzuek nazioarteko sareetan duten elkartzeko gaitasuna bera (Galante et al., 2020).

GLDren kasuan, oso eginkizun eskasa izan du duela gutxi arte, baina gero eta garrantzi handiagoa hartu du hainbat eragilek eta nazioarteko agendaren eztabaida-esparruek gero eta gehiago hartzen dutelako aintzat. Zehazki, Laguntzaren Eraginkortasun Agendaren esparruan hasieran erresistentziak izan baziren ere, Accra (2008) eta Busan (2011) bezalako foroetan, Aliantza Global berriaren gisako planteamenduek eragile eta dinamika berriei atak ireki zizkieten nazioarteko lankidetzaren esparru horretan, GLDk esparru bat izango luke jarduera horiek maila anitzeko eta eragile anitzeko ikuspegietatik jorratzeko, modu inklusiboagoan betiere. Horri izugarri lagundu zion gero eta adierazpen eta posizionamendu gehiago artikulatzeak, batez ere Nazio Batuen, Europar Batasunaren (EB) eta ELGEren esparruan, non tokiko eta eskualdeko eragileak gero eta eragile garrantzitsuagoak hartzen hasi baitziren.

Oraindik gutxiago badira ere, estatuz azpiko erakundeak gero eta presentzia handiagoa dute lankidetzaren eragile gisa. Lankidetzaren hori dituen finantza-baliabideengatik

bakarrik dimentsionatu behar ez bada ere, ELGEren azterketek (2018, 2019) erakutsi dute pixkanaka-pixkanaka handitzen ari dela estatuz azpiko eragileek emandako Garapenerako Laguntza Ofiziala: 2005ean 1.700 milioi dolar ziren, 2015ean 1.900 dolar, eta 2017an, berriz, 2.300 dolar. Horren harira, ikerketa honetan bildutako datuek berretsi egin dute joera hori, 2019an 2.645 milioi gehiago izan baitziren. Oso zifra apalak dira guztizko Garapenerako Laguntza Ofizialaren esparruan, baina, nolana ere, goranzko joera erakutsi dute, ziur aski gutxietsita egongo bada ere (15 herrialdek bakarrik eman zuten praktika horien berri 2019an).

Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren kontzeptua eta mugaketa

Lehenik eta behin, esan behar da ez dagoela GLDren definizio bakar eta eskuarki onarturik.

Hasteko, askotarikoa da “estatuz azpikoaren” osaera bera. Lehen mailan eskualdeak edo antzekoak egon ohi dira (estatu federatuak, autonomia-erkidegoak, kantoiak), ñabardurekin beren autonomiari eta eskumenei dagokienez, estatuek zehaztuak. Horri esparru probintziala gehitu ohi zaio, ezaugarri desberdinekin hura ere. Hirugarren mailan udal-maila dugu, agian homologagarriena hainbat tokitan (Labaien, 2014; Unceta et al., 2013). Horri beste kasu berezi batzuk gehitu beharko litzazkioke administrazio-ingurune bakoitzean.

Administrazio-mugaketaz haratago, ELGEren azterlan berri batek (2018) termino horren definizio desberdinak jaso zituen 7 herrialdetan eta EBren esparruan, eta ñabardura batzuk erakusten ditu.

Kasu batzuetan, jatorria estatuz azpiko erakundeetan duten Garapenerako Laguntza Ofizialaren funtsen transferentzian jartzen da arreta, Lankidetza ofizial deszentralizatua edo Laguntza ofizial deszentralizatua deienez horretan. Ikuspegi horien barruan, batzuek praktika horien berezko gisa adierazten dute erakunde bazkideak erakunde publikoak ere izatea (horrek kanpoan utziko litzuzke beste eragile batzuk barne hartzen dituzten praktika asko).

Beste kasu batzuetan, kontzeptua zabaldu egiten da, eta garrantzi txikiagoa ematen zaio finantza-arloari, eta hirien eta eskualdeen arteko elkartruke-, elkartze- edo senidetze-harremanak barne hartzen dituzten jarduerak hartzen dira aintzat. Hala, garapenerako lankidetzaren eta GLOren arteko identifikazio txikiagoan egin nahi da aurrera. ELGEko herrialdeetan jatorria duten funtsen transferentziei buruzkoa da azken hori. Transferentziak bi aldetatik edo alde anitzetatik bideratzen dira, eta duela hamarkada batzuetatik oso ezaugarri zehatzak dituzte GLBren esparruan. GLOren

eta garapenerako lankidetzaren (kontzeptu zabalagoa) arteko bereizketa garrantzitsua da, batez ere, ikusi dugun moduan, lantzen diren arazo globalak ez daudenean beti transferentziekin lotuta. GLDren kasuan (edo Hegoalde-Hegoalde Lankidetzaren kasuan) are zentzu handiagoa du bereizketa horrek, hartan funtsen transferentzia ez baita funtsezko ezaugarrietako bat.

Beste hurbilketa batzuek hainbat eragileren parte-hartzea azpimarratzen dute, ofizialak ez direnak barne, hala nola GGKEak. EBren kasuan, adibidez, lankidetzaren mota hori jasota dago Lomeko IV. Konbentziotik (1989-90), eta tresna berritatu hartu beharrean, tradizionalaren osagarritzat jotzen da, gizarte zibilaren eta beste eragile batzuen zeregina azpimarratuz.

Egia esan, argi dago praktika horien interesa ez dela hainbeste finantzazaileria nor den (bere funtsekin eskema tradizionalak erreplikatzera mugatu bailiteke), baizik eta lankidetzaren mota horrek eman dezakeen ikuspegi bereizgarria nabarmentzea. Praktikan, jarduera horiek eboluzionatzen joan dira, hirien edo eskualdeen arteko senidetzeetan edo lankidetzaren oinarritutako jatorrietatik gero eta harreman-modu instituzionalizatuagoetara, haien arteko GLO barne.

Horregatik, eta azterlan honen ondorioetarako, ikuspegi zabala erabili dugu lankidetzaren-ikuspegi horrekin egindako jarduerak biltzen dituen. Estatus azpiko erakundeetatik eta haiek emandako funtsetatik abiatuta, fokua zabaltzen saiatu gara, eta horrek esan nahi du funtsezko eragileei (GGKEei, esaterako) edo proposatzen diren harreman-moduei eta tresnei eman behar zaiela arreta. Ikusiko den bezala, batzuetan zaila da funts ofizialetan oinarritutako azterketatik urruntzea, haiek baitira datu eskuragarrienak eta konparagarrienak (nahiz eta mugak izan).

2.2. Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren potentzialtasunak

Jarraian, garapenerako lankidetzaren deszentralizatuari tradizioz aitortu zaizkion potentzialtasun nagusiak aipatuko ditugu:

1. **Maila anitzeko ikuspegia:** maiz aipatzen da nazioarteko, nazioko, eskualdeko eta tokiko esparruak uztartuko dituen lankidetzaren beharra, erronka globalei erantzuteko modu gisa. Lankidetzaren deszentralizatua tresna baliagarria izan daiteke norabide horretan.
2. **Eragile anitzeko ikuspegi parte-hartzailea:** lankidetzaren horren kasuan, inklusiboa izateko erraztasuna nabarmentzen da, era guztietako erakunde

publiko eta pribatuen arteko topaketak sortuz. Horri gehitu behar zaio gizarte zibilaren, GGKEen, migratzaileen komunitatearen, hezkuntza-sektorearen eta sektore pribatuko beste talde batzuen parte-hartzea bultzatzeko gaitasuna.

3. **Baldintzatzaile txikiagoak:** kasu guztietan gertatzen ez bada ere, baldintzatzaile diplomatiko, politiko edo geostrategiko txikiagoekin lan egiteko aukera nabarmentzen da, lankidetzaren tradizionalararekin alderatuz gero. Horren harira, garapenerako politiken koherentzia aurrera egiteko aukera zabaltzen da, era guztietako politiketan ikuspegi zabalagoak txertatuz.
4. **Horizontaltasuna:** lankidetzaren mota horrek lotura horizontalagoa eragin dezake, elkarrekikotasunari dagokionez. Horrek aukera ematen du emaila-hartzaile ikuspegi tradizionalaren aldetan aurrera egiteko, garapenerako lankidetzaren oraindik ere oso presente baitago (Unceta et al., 2011, Labaien, 2014).
5. **Gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak:** lurraldean dauden gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak aprobeitatu litezke. Hori bereziki garrantzitsua da maila honetan ezagutza handiagoa dagoelako herritarrengandik hurbil dauden gaiei buruz, tokiko garapen-estrategiei lotuta baitaude. Horren harira, hirigintzako eta udal-kudeaketako gaiak aurki ditzakegu, edo eskumen deszentralizatuekin zerikusia duten beste batzuk. Era berean, hiriek eta eskualdeek hezkuntza, garraioa edo etxebizitza bezalako gaiei aurre egiteko duten esperientzia azpimarratu behar da (ELGE, 2019).
6. **Deszentralizazio-prozesuak:** aurreko puntuari dagokionez, estatuz azpiko erakundeak baliagarriak izan daitezke deszentralizazio-prozesuetan duten esperientzia helburuko herrialdeekin partekatzean, haien prozesuei, mekanismoei eta arazoaren konponbideari dagokienez (Martínez eta Sanahuja, 2012).
7. **Herritartasun globalerako hezkuntza²:** herritarrengandik hurbilago dagoenez, eta, agian, estatuz azpiko administrazio batzuek hezkuntzaren arloan dituzten erantzukizunengatik eta eskumenengatik ere bai, lankidetzaren mota horrek rol protagonista izan dezake arlo horretan (Unceta et al., 2011).

2 Ikusiko dugunez, GLBk tresna gisa (H01: gizarte sentsibilizazioa garapeneraren gaiari buruz) eta jardueraren sektore gisa (99820: sentsibilizazioa garapenerarekin lotutako arazoei buruz) kokatzen ditu horrelako jarduerak. Kasu horietako aipamen testuala baino gehiago, *herritartasun globalerako hezkuntza* terminoa erabiliko dugu, oro har, praktika horiek aipatzeko. Hori ohiko izena da nazioarte-mailan (adibidez, CONCORD, Europako GGKEen konfederazioa), nahiz eta jardueraren horiek ikuspegi eta izen desberdinak izan.

Logikoa denez, zerrendak biltzen dituen ezaugarriak, edo aukerak, ez dira beti lankidetzaren deszentralizatuko jardueretan agertzen. Hain zuzen ere, gai hori da (praktikak potentzialtasunei erantzuten ote dien, edo nola egin lezakeen) azterlan honen motibazioetako bat. Alde horretatik, ohikoa da diskurtsoaren eta praktikaren artean jauzi handi bat aurkitzea. Arrakala hori saihestezina da, baina GLDren kasuan, askotan, duen izaeratik etorritako potentzialtasunekin (interesik eza, horizontaltasuna...) oso lotuta dagoen diskurtsoa eredu oso bertikal batekin konbinatzen da, lankidetzaren tradizionalaren elementu asko erreplikatzeko dituenak.

2.3. Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuen mugak

Dituen potentzialtasunekin batera, zenbait muga eta arazo antzeman ohi dira lankidetzaren mota horretan, bere eskala edo gaitasunekin lotutakoez gain. Kritika orokorrak egitea zaila bada ere (eredu desberdinak zehaztu gabe), praktika eta dokumentu desberdinetan identifikatutako zenbait arazo edo arrisku azalduko ditugu jarraian:

1. **Balitzeko zatiketa eta deskoordinazioa:** egia esan, ez da GLDren arazo eskusiboa, baina koordinazio-arazoak arrisku potentzial gisa identifikatzen dira, eskala txikiko jarduerak kopurua eta inplikaturako eragile ugariak kontuan hartuta. Kanpo-politikako erantzukizunak partekatzen dituzten hainbat erakunderen parte-hartzea, eta dituzten helburuei eta lan-ildoei dagokienez dauden aldeak aipatu dira arazo posible gisa, adibidez, Kanadan (Campbell eta Hatcher, 2004).
2. **Funtsak bideratzea:** kasuistika askotarikoa bada ere, eragile ugariak parte hartuz gero, proposamen berritzaileak egin daitezke, baina baita nahi ez diren ondorioak sortu ere. Batzuetan zurruntasun edo burokrasia moduan agertzen da hori, nahiz eta hori ez izan lankidetzaren mota horren arazo eskusiboa. Dirulaguntzen deialdien kasuan, adibidez, prozesu horiek positiboak izan daitezke gizarte zibileko erakundeak sartzeko eta funtsen esleipena eta gardentasuna hobetzeko. Hala ere, disfuntzioak ere eragin ditzakete, hala nola funtsak erakartzeko gehiegizko lehia, eta horrek zaildu egiten du eragileen arteko lankidetzaren. Era berean, konplexutasun handia ekar dezake kudeaketan, bai eta gizarte zibileko beste erakunde mota batzuek edo administrazioak berak izan dezaketen parte-hartzea mugatu ere (Unceta et al., 2011; Martínez eta Sanahuja, 2012).
3. **Jarraipena eta ebaluazioa:** askotan aipatzen da zaila dela praktika horiei buruzko informazio nahikoa eta egokia biltzea, eta horrek zaildu egiten

du jarraipena eta ebaluazioa egitea, bai eta ikastea ere. GLOren sistema tradizionalari dagokionez, gutxietsita egoten jarraitzen dute (ELGE, 2019), eta, kasu askotan, ekimen txikiak dira, kontabilizatzen ez direnak, nahiz eta tokiko mailan prozesu interesgarriak sor ditzaketen. Egiaztapen horretatik haratago, praktika horietan funtsen transferentzia ez da beste kasu batzuetan bezain garrantzitsua, eta, horrenbestez, beharrezkoa da beste jarraipen mota bat egitea. Alde horretatik, oraindik ez dago erregistratzeko proposamen alternatiborik, praktika egokiak identifikatzeko eta esperientziak errepikatzeo aukera emango lukeena. Hala ere, gero eta sare eta elkarte gehiagok biltzen dituzte horrelako praktikak, lankidetzaren ikuspegi zabal batetik (**CGLU: Ciudades y Gobiernos Locales Unidos, Plataforma: hirien eta eskualdeen europar koalizioa, Lankidetza Deszentralizatuaren Behatokia...**).


Potentzialtasunen kasuan bezala, muga horiek modu desberdinean emango dira kasuen eta praktika zehatzen arabera. Zenbait lekutan, adibidez, koordinazio-metodoak ezarri dira, edo gardentasun- eta jarraipen-tresna egokiak garatu dira arazo horiek murrizteko. Beste batzuetan, berriz, eragile gutxiago inplikatzeko dituzte ekintzek, eta horrek ere lana errazten du.

2.4. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren gaur egungo garrantzia

Fenomeno berria ez bada ere, badirudi GLD espazioa eta onarpena irabazten ari dela garapenerako lankidetza-jardueren esparruan. Horrek esan nahi du, halaber, sektorean aintzat hartzen ari dela eta pixkanaka instituzionalizatzen eta garrantzia hartzen ari dela, eta hori oso nabarmena da Espainiaren kasuan.

Aipatutako testuinguruak berak, 2030 Agendak eta nazioarteko lankidetza-sistema birplanteatzeko beharrak, praktika alternatibo horien aukerak aztertzen laguntzen duela dirudi.

Gero eta garrantzi handiago horren erakusgarri dira interes akademikoa bera eta hainbat erakunderen interesa, lankidetza deszentralizatuaren inguruko plataformak eta azterlanak bultzatzen ari baitira azken aldi honetan (Platforma, 2012; Fernández de Losada et al., 2013; ELGE, 2018, 2019).



Iturria: egileek sortua, ELGEn CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

Aurrekontu-alderdiei dagokienez, eta praktika horiek ez direla neurtzeko errazak kontuan hartuta, GLOrena bezalako adierazle erantsiek goranzko ibilbidea erakutsi


dute azken urte hauetan, lehen aipatu bezala. 1. irudian praktika horien berri eman zuten herrialdeak ageri dira, bai eta 2015ean eta 2019an jasotako balioak ere, zeinetan 2.645 milioi dolarrera iritsi baitziren, ordainketa garbiak *grant equivalent* metrika berriaren arabera neurtuta³.

Laburbilduz, lehen hurbilketa batean ikusten dugu funtsak handitzeko joera dagoela (nahiz eta ez den kasu guztietan gertatzen), eta litekeena da, halaber, zenbait herrialdetan horren inguruko txostenik ez izatea, informazioarik ez dagoelako.

3 GLOren fluxuen kontabilizazioari dagokionez, hobekuntza bat gertatu da duela gutxi, eta hobekuntza horrek laguntza-funts itzulgarrii (emakida-baldintzetan dagoen zorra) eragiten die bereziki, dohaintza baliokidean neurtuak (grant equivalent). GLDren kasuan, oso mugatua da aldaketa horren eragina, baina, nolana ere, metrika berri horri jarraituko diogu. Esan beharra dago, halaber, analisirako garrantzi txikia duten arren, GLBkoak ez diren herrialde batzuk ere hartzen dituztela datuek (Arabiar Emirerri Batuak, esate baterako).



3. Munduko lankidetzaren deszentralizazioa: ikusitako zenbait ezaugarri eta eztabaida



Aztertutako bibliografiatik eta GLBtik jasotako datuetatik abiatuta, funtsezko zenbait kontu aurkeztuko ditugu jarraian, lankidetza-mota horren praktikak hobeto ezagutzeko eta eztabaida edo ekintza-ildo berriak planteatzeko baliagarriak izan daitezkeenak.

3.1. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren egokitasuna

GLDri buruzko eztabaida, batez ere GLD hori bere eragileetatik kanpo sortu denean, maizegi zehaztu izan da agregazio ikuspegitik begiratuta lankidetza-sistema ofizialari dagokionez. Hau da, batez ere gobernu zentralek bultzatutako nazioarteko lankidetza-prozesuei lankidetza horrek zer balio erantsi ematen zien aztertu da. Dimentsio kuantitatiboan ere jarri du arreta, tokiko eta eskualdeko gobernuek mobilizatutako GLOz kezkatuta.

Bi hurbilketa horiek beharrezkoak badira ere, lankidetza deszentralizatuari buruzko eztabaidak ikuspegi horretan oinarritzeak ez zuen uzten lankidetza horrek egiaz egindako ekarpenaren balorazio zabalagoa eta errealitagoa egiten, nolabait, dituen ezaugarrietara egokitua. Belo horren presentziak desitxuratu egin du, inolaz ere, GLDk arazo globalei erantzuteko eta munduko pertsona guztientzako bizitzaren jasangarritasuna bermatuko duen bizikidetza-esparru globala artikulatzeko egiten dituen ekarpen nagusiak zein diren eta zein izan daitezkeen jakiteko ikuspegia.

Hain zuzen, ikuspegi hori egokiagoa da lankidetza deszentralizatuaren egokitasuna baloratzeko orduan, erronka kolektiboak, nazioz gairikoa eta elkarren mendekoak dituen mundu honetan, horiek ekintza kolektiboa eskatzen baitute. Hala, bada, maila anitzeko eragileak artikulatzeko beharra gero eta handiagoa den testuinguru batean sortu da GLD. Testuinguru horretan, gai globalen aurrean erantzukizuna partekatua, baina berezia, izan dadin, aurrerapausoa egin behar du gizarte global osoak, bai eta tokiko eta eskualdeetako gobernuek ere. Tokiko eta eskualdeko gobernu horientzat GLD tresna guztiz egokia da arazo globalei eman beharreko erantzun asko bideratzeko.

Duen izaerak, gainera, ezaugarri desberdinetatik abiatuta lan egiteko aukera ematen die; izan ere, egokitasun handiko lankidetza da, eta balio bereizgarria emateko potentzialtasun handia du, beste eragile batzuek ez dutena. Beste logika horizontalago batzuetatik eta elkarrekikotasun handiagotik lan egiteko aukeraz ari gara hain zuzen ere, gobernu zentralek eta erakunde aldeaniztunek bultzatutako Iparra-Hegoa lankidetza tradizionalaren aldean.

GLDren egokitasunari buruz hitz egiterakoan, esan behar da tokiko eta eskualdeko eragileek, lurraldearekin lotura handiagoa dutela. Gainera, esperientzia zabala dute nazioarteko lankidetzaren prozesuetan giltzarri diren hainbat gaitan, hala nola, tokiko garapenean, erakundearen arteko laguntzan eta ikaskuntzan, gizarte zibileko erakundeei laguntzean edo lurraldeari lotutako politika publikoen kudeaketan, elementu batzuk bakarrik aipatzearen.

Nabarmendu beharra dago, halaber, GLDk duen eginkizuna nazioarteko lankidetzaren sistema demokratizatzeko beharraren aurrean; izan ere, sistema horren izaera eta instituzionaltasuna boterea Ipar Globaleko herrialdeetan biltzen duten joera batzuen ondorio dira, eta, gainera, ikuspegi estatuzentrikotik begiratuta. GLDk boterea demokratikoki zabaltzeko eta banatzeko zeregina izango du nazioarteko lankidetzaren sisteman, askotariko eragileak sartuta, ikuspegi desberdinekin eta nazioarteko lankidetzaren ulertzeko eta praktikan jartzeko modu desberdinekin.

Lankidetzaren horrek erakutsi du gizartearen eta lurraldeen artean lotura solidarioak daudela tradizioz. Komeni da kontu hori ez ahaztea gaur egungo testuinguru kritikoa, krisi sistemikoa ezaugarri duen egoera honetan (Covid-19ak eragindako pandemia eta Ukrainako gerraren ondorioak azken adierazpenak); izan ere, tentsio handia ikusten dugu nazioarteko lankidetzaren joera sekuritario eta ekonomizistarantz, eta, seguruenik, horrek markatuko du agenda hurrengo urteetan.

3.2. Garapenerako lankidetzaren deszentralizazioaren garrantzi kuantitatibo mugatua

Adierazi dugun bezala, GLOren zenbatekoa ez da analisiaren erdigunetzat hartu behar GLDren kasuan. Lehenik eta behin, haren garrantzi kuantitatiboa txikia da GLO globalaren esparruan. Gainera, duen izaeragatik, badirudi lankidetzaren horren interesa gehiago oinarritzen dela harremanak, parte-hartzea eta trukeak sortzean, edo aldaketa-prozesuak bultzatzean, eta hori askotan ez da zuzenean islatzen kudeatutako zenbatekoetan.

Nolanahi ere, lankidetzaren horren ibilbidea, irismena eta konparatzeko aukerak kontuan hartuta, interesgarria da maila globalean eskuragarri dauden GLOren datuak behatzea. Horrela, fenomenoaren dimentsionatu dezakegu, eta ezaugarri orokor batzuk azter ditzakegu.

GLO deszentralizatuak nazioartean izan duen bilakaera aztertzeko, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) **Creditor Reporting System** (CRS)⁴, datu-basera jo dugu.

Datu base hau munduko iturri nagusia da arlo horretan, eta aukera ematen du herrialdeen eta haien erakunde deszentralizatuaren artean konparazioak egiteko, irizpide homogeenak erabiltzen baititu GLO ekimenen arabera erregistratzeko eta sailkatzeko⁵. CRS datu-basetik GLO deszentralizatuaren fluxuak ateratzeko, GLBk herrialde bakoitzaren barruan egindako eskualdeko eta tokiko erakundeak kodifikaziora jo dugu (eranskinean ageri dira kodifikazio horren xehetasunak).

Lehen ikusitako hazkunde-joeratik haratago (1. irudia), esan behar da globalki hartutako GLOren gutxieneko zati bat direla funts horiek, hau da, 2019an guztizko GLOren % 1,75 eta alde biko GLOren % 2,43⁶. GLO deszentralizatuak ematen duten herrialdeak bakarrik hartzen baditugu kontuan, ehuneko horiek guztizkoaren % 2,71ra eta alde biko GLOren % 3,87ra igotzen dira (ikus 1. taula).

Guztizko zenbatekoei dagokienez, Alemania nabarmentzen da argi eta garbi, guztizkoaren % 58 inguru hartzen baitzuen 2019an. Geroago ikusiko dugun bezala, herrialde horretara ikastera joaten diren atzerritarrentzako bekek eta egotzitako kostuek osatzen dituzte batez ere funts horiek. Espainia, Kanada, Frantzia eta Belgika dira hurrengo herrialdeak, eta, Alemaniarekin batera, mota horretako GLO funts guztien % 93 hartzen dute. Guztira, lankidetzaren mota horren berri ematen duten 15 herrialde zeuden zerrendan 2019an (guztira 30 kide ditu GLBk).

4 Testuan aipatzen den informazioa errazago eskuratzeko, kasu honetan eta beste batzuetan, aipatutako datu-baseetara, atarrietara eta helbideetara askatasunez iristeko moduko estekak daude dokumentu digitaleko testuan txertatuta, bibliografiaren ondoren ere zerrendatuta daudenak. Kasu horietan guztietan, estekek behar bezala funtzionatzen zuten 2022ko irailean.

5 CRS datu-baseak desberdintasunak ditu DAC 1 izeneko laguntza-fluxuen datu-basearekin, bigarren honek aukera ematen baitu herrialde bakoitzaren GLOren zifra ofiziala eta BPG-rikiko duen ehunekoa lortzeko. Hala ere, Perezek dioen bezala (2018), CRS eta DAC 1 datu-baseen arteko desberdintasun horiek pixkanaka gutxituz joan dira azken urteotan.

6 ELGEren (DAC1) datuen arabera, 2019an guztizko GLO 151.499 milioi dolarrekoa izan zen; horietatik 108.752 milioi dolar (grant equivalent) alde biko GLO izan zen, eta gainerakoa alde anitzeko GLO.

1. taula. GLO fluxuak herrialde emaleen arabera 2019an

	GLO deszentralizatua (milioika US\$, grant equivalent)	GLO guztira (milioika US\$, grant equivalent)	GLO deszentralizatua/ GLO guztira (ehunekoa)	Aldebiko GLO (milioika US\$, grant equivalent)	GLO deszentralizatua/ Aldebiko GLO (ehunekoa)
Alemania	1.527,75	24.197,70	% 6,31	18.581,10	% 8,22
Espania	370,17	2.943,50	% 12,58	1.037,09	% 35,69
Kanada	345,93	4.725,24	% 7,32	3.230,35	% 10,71
Frantzia	135,84	12.211,36	% 1,11	7.421,27	% 1,83
Belgika	76,68	2.174,57	% 3,53	1.133,11	% 6,77
Suitza	64,27	3.099,07	% 2,07	2.359,89	% 2,72
Italia	40,69	4.411,33	% 0,92	1.435,94	% 2,83
Suedia	33,65	5.205,24	% 0,65	3.468,90	% 0,97
Erresuma Batua	20,31	19.154,41	% 0,11	13.064,17	0,16
Austria	20,20	1.229,88	% 1,64	446,67	% 4,52
Arabiar Emirerri Batuak	5,05	2.240,01	% 0,23	2.128,36	% 0,24
Japonia	3,33	15.587,68	% 0,02	11.793,64	% 0,03
Portugal	1,52	410,47	% 0,37	146,45	% 1,04
Letonia	0,09	34,36	% 0,27	4,46	% 2,06
Lituania	0,01	67,67	% 0,01	12,01	% 0,06
Guztira	2.645,49	97.692,49	% 2,71	68.408,24	% 3,87

Iturria: egileek sortua, ELGERen CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

Zenbateko globaletik haratago, eta herrialdeen eta haien populazioen tamaina-desberdintasuna ikusita, interesgarria da GLO deszentralizatuaren garrantzi erlatiboa behatzea. Alde horretatik, Espainiaren kasua da, argi eta garbi, adierazgarriena, 2019an guztizkoaren % 12,58 hartu baitzuen, eta aldebiko GLOren % 35,69. Beheranzko hurrenkeran, Kanadako, Alemaniako eta Belgikako kasuak ere aipagarriak dira, GLO mota horren parte-hartze erlatiboagatik.

3.3. Eragile inplikatuak eta lan-ildoak aniztasuna

Dagoeneko aipatu dugu, duen potentzialtasun gisa, GLDk askotariko eragileen jarduerak hitzartzeko duen gaitasuna, eragile anitzeko eta partaidetzako ikuspegiarekin. Aniztasun horren ideia ematen dute aztertutako kasuek.

Hala, Alemanian, estatu federatuak eta udalerrak dira eragile nagusiak, tradizio luzea eta ikuspegi propioa baitute Hego globaleko eragileekin lankidetzaren harremanak izateko garaian (Fernández de Losada et al., 2013). Eragile publikoen gain, gizarte zibileko erakundeek eta fundazioek osatzen dute Alemaniako garapenerako lankidetzaren eragile-sorta zabala, GGKEak (horien artean, eliza katolikoari eta protestanteari lotutako bi erakunde handi bana) eta fundazio politikoak barne hartuta (ELGE, 2021). Kasu honetan nabarmentzekoa da unibertsitateen eginkizuna, GLBren irizpideen arabera GLO gisa jasotzen diren funtsen % 97 bideratzen baitute.

Espanian, lidergoa dute autonomia-erkidegoek finantzatzaile gisa (baina alde handiak daude haien artean). Nabarmentzekoak dira, halaber, aldundien edo hirien ekarpenak edo unibertsitateen ekarpen kualitatiboak. Bestalde, GGKEak dira funtsak bideratzeko bide nagusia, baina administrazioek berek, unibertsitateek edo bestelako erakundeek ere parte hartzen dute kanalizazioan eta exekuzioan.

Belgika, oso gobernu deszentralizatu bati, lankidetzaren deszentralizatuari laguntzeko sistema mistoaren adibidea da, inolaz ere. Alde batetik, lankidetzaren mota hori babesten duen programa federala du, gobernuaren lehentasunen eta estrategiaren arabera. Bestalde, eskuarki malguagoak diren eskualde-programak ditu, lurraldearen espezifikotasuna aprobeztatzen dutenak herrialde eta gai jakin batzuekiko lotura historikoei jarraituz (Fernández de Losada et al., 2013). Ikusiko dugunez, askotariko eragileetan oinarritzen da bere jarduerak egiteko.

Kanadaren kasuan, “nazioarteko udal-lankidetzaren” esamoldearekin izendatzen da lurralde-erakundeek garatutako nazioarteko lankidetzaren, eta Kanadako Udalerrien Federazioa (Fédération Canadienne des Municipalités, FCM) da solaskide nagusia udal-lankidetzarekin zerikusia duen guztian. Federazio horren helburua atzerriko herrialdeetako udal-gobernuei beren herritarren bizi kalitatea mantentzeko eta hobetzeko gaitasuna indartzen laguntzea da. FCM federazioan hiri handiek, herri txikiek eta landa-komunitateek hartzen dute parte, bai eta biztanleen % 90 baino gehiago ordezkatzen duten udalerrietako 20 probintzia- eta lurralde-elkartek ere⁷. Hala ere, administrazio publiko deszentralizatutik haratago doa GLDri buruz duten ikuspegia, eta nazioarteko elkartasuneko erakundeetara eta elkarteetara zabaltzen da. Dali et al. (2019) egileek dioten bezala, toki espazio horietatik sustatzen den GLDk elkarrekikotasun logika batetik abiatuta ireki nahi du lankidetzaren.

Frantziak, berriz, GLDri egiten zaizkion ekarpenak islatzean, bereizi egiten ditu eskualdeak (14 ziren 2019an), departamentuak (56 ziren 2019an), elkarte

7 Haren webgunetik, www.fcm.ca jasotako informazioa (2022ko iraila).

interkomunalak eta metropolitanoak (110 ziren 2019an) eta udalak edo udalerrriak (860), eta azken horiek 100.000 biztanle baino gehiagokoen eta gutxiagokoen artean bereizten ditu. Datu horiek adierazi dituzten lurralde-kolektibitateen kopuruak gora egin du azken urteotan, bereziki 2018 eta 2019 bitartean (470 izatetik 1.040 izatera pasa da). GKEek presentzia handia dute jarduera horietan.

GLO deszentralizatuaren funtsak mundu mailan bideratzen dituzten eragileen sailkapenari dagokionez, 2. taulak haien banakapena erakusten du GLBren datuen arabera. Kontuan hartu behar da, GLOren datuak direnez, hor ez direla sartu GGKEek kudeatutako funts pribatuak (Espainiakoa bezalako kasuetan, Garapenerako Erakundeen Koordinakundeko erakundeek funts pribatuak kudeatzen dituzte funts publikoen antzeko zenbatekoekin, eta azken horiek bakarrik kontabilizatzen dira GLO gisa).

2. taulan ikus daitekeenez, funtsen % 95 inguru hiru aukera nagusiren bidez bideratzen dira: unibertsitateak, GKEak (batez ere herrialde emailekoak) eta erakunde publikoak (horiek ere herrialde emailekoak).

Gainerako funtsetan, ikusten da nazioarteko erakundeen bidez bideratzen dela proportzio txiki bat (% 1,57), eta horixe da lankidetza-mota hori lankidetza tradizioaletik bereizten duen ezaugarri bat. Bestalde, ez da batere ohikoa sektore pribatuaren (% 0,13) edo Aliantza Publiko-Pribatuen (% 0,08) bidez bideratzea, edo ez zaio GLO sistemari jakinarazten.

Azkenik, deigarria da 93,61 milioi dolarreko zenbatekoa egotea “Beste batzuk” atalean, eta horrek kontabilizazio- edo esleipen-arazo bat islatzen du, bereziki Espainiaren kasuan (93,61 milioi horietatik 85); izan ere, era askotako kasuak biltzen ditu hor, besteak beste, gizarte zibileko erakundeak, lankidetza-funtsak, erakundeak eta abar.

2. taula*. Munduko GLO deszentralizata, erakunde bideratzaile motaren arabera (2019)

Kodea	Erakunde mota	Milioika dolar (grant equivalent)	Ehunekoa guztizkoarekiko (%)
10000	Sektore Publikoko erakundeak	469,58	% 17,75
11000	Gobernu emaila	435,31	% 16,45
12000	Gobernu hartzailea	32,43	% 1,23
13000	Hirugarren herrialde bateko gobernua (lankidetza eskuordetua)	1,84	% 0,07
20000	Gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) eta gizarte zibila	470,30	% 17,78
21000	Nazioarteko GKEa	19,04	% 0,72
22000	GKEa herrialde emailean	428,04	% 16,18
23000	Garapen-bidean dauden herrialdeetako GKEak	23,21	% 0,88
30000	Aliantza Publiko-Pribatuak (APP) eta Sareak	3,33	% 0,13
31000	Aliantza Publiko-Pribatua (APP)	2,15	% 0,08
32000	Sareak	0,97	% 0,04
40000	Nazioarteko erakundeak	41,55	% 1,57
41000	Nazio Batuen agentziak, funtsak edo batzordeak	23,37	% 0,88
47000	Alde anitzeko beste erakunde batzuk	14,08	% 0,53
51000	Unibertsitatea, ikastetxea edo beste irakaskuntza-erakundea, ikerketa-institutua edo aditu-taldea	1.563,77	% 59,11
60000	Sektore pribatuko erakundeak	3,35	% 0,13
90000	Bestelakoak	93,61	% 3,54
	Guztira	2.645,49	% 100,00

Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

* Letra lodiz idatzitako lerroek multzokatutako agente nagusiak jasotzen dituzte, letra lodiz nabarmendu gabeko kopuruak talde horietako kasu zehatz batzuk adierazten dituzte.


Unibertsitateen kasuaz haratago, honako hauek dira kasu gehienetan eragile bideratzaile nagusiak:

- 1) GKEak (funtsen % 17,78); herrialde emaileko GKEak nagusi dira argi eta garbi nazioartekoen edo herrialde hartzailekoen aurretik.

2) Erakunde publikoak (funtsen % 17,75), batez ere herrialde emalekoak, eredu desberdinak ikusten badira ere. Alemanian edo Kanadan herrialde emaleko maila desberdineko gobernuak eta agentziak dira ia denak; Espainian eta Belgikan, berriz, herrialde bazkideetako erakundeen partaidetza erakunde publikoek bideratutako funtsen % 17-18 da. Frantzia, banaketa zuzenagoa da Frantziako erakunde publikoen eta herrialde bazkideen artean (% 53-47).

2. irudian ikus dezakegun bezala, datu agregatuek ez dute antzeko banaketa erakusten herrialde bakoitzean, oso eredu desberdinak baizik. Hala, unibertsitateen garrantzia askotarikoa da. Bestalde, oro har, erakunde publikoen eta GKEen parte-hartzea oso antzekoa izan arren (470 milioi inguru bi kasuetan), errealitatea da herrialdeen arteko praktika anitza da.

2. irudia. GLO deszentralizatua, erakunde bideratzaile motaren arabera (2019)



Iturria: egileek sortua, ELGEn CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

2. irudian ikus daitezkeen bezala, Kanadan sektore publikoak bideratzen du funtsen % 76; Frantzia, berriz, % 29; Belgikan % 17; eta Espainian % 10 baino gutxiago (Alemanian portzentualki ez da garrantzitsua bideratzaile gisa unibertsitateen aurrean).

GKEei dagokionez, eragile nagusia dira Espainian, Frantzia edo Belgikan, eta ez dira oso garrantzitsuak Kanadako eta, bereziki, Alemaniako GLBen GLO datuetan.

Belgika kasu interesgarria izan daiteke inplikaturako eragileen aniztasunean sakontzeko, bideratze-eredu nahiko orekatua erakusten baitu sektore publikoaren, unibertsitateen, GKEen eta nazioarteko erakundeen artean.

3.4. Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren tresnak

Kasu askotan, senidetzeen bidez hasi zen udalerrien eta eskualdeen arteko lankidetzaren, eta senidetze horiek sarritan mantendu egin dira denboran, jarduera maila desberdina izan bada ere. Beste kasu batzuetan, elkartasunezko lanaren tradizio luzea dute gizarte zibileko erakundeek edo erakunde erlijiosoek, eta, zenbaitetan, instituzionalizatu egin da. Aipaturakoen moduko alderdiek, edo sareko lanek eta aliantza estrategikoen, non hirien mugimenduak edo beste batzuk sar daitezkeen, askotariko praktikak erakusten dituzte, kasuz kasu aztertu beharrekoak.

Tokiko praktikak askotarikoak direnez, zaila da guztien ikuspegi bateratua izatea; izan ere, askotan, ez dute funts-transferentziarik ekartzen, eta ez dira GLOren gisako sistemetara bideratzen, kasu horietara gutxi egokitzen baita. Nolanahi ere, GLBren datu global batzuk bildu ditugu, jarduteko tresnak edo moduak identifikatzen laguntzen dutenak.

3. taulan, GLBk aintzat hartzen dituen tresna mota ugari daude. Hala ere, ikusten dugunez, GLO ikasleei egotzitako kostuen erabileran (E02), proiektuetan (C01) eta errefuxiatuei eta asiloari lotutako kostuetan (H02, H03, H04, H05) biltzen da, guztizkoaren % 90 baino gehiago hartzen baitute horiek guztiek batera.

3. taula*. Munduko GLO deszentralizatua, tresna motaren arabera (2019)			
Kodeak	Tresnak	Milioika dolar (grant equivalent)	Ehunekoak guztizkoarekiko (%)
A	Aurrekontu-laguntza	2,24	% 0,09
B	Ekarpen orokorrak, ekarpen espezifikoak eta emaileen saskia	65,43	% 2,47
B01	Laguntza orokorra GKEei, gizarte zibileko erakundeei, PPPri eta ikerketa-institutuei: lotu gabeko laguntza	44,87	% 1,70
C	Proiektuak	548,21	% 20,72
D	Adituak eta bestelako laguntza teknikoak	96,47	% 3,65
D01	Herrialde emaileko langileak	60,49	% 2,29
E	Ikasleen bekak eta gastuak herrialde emaileetan	1.545,70	% 58,43
E02	Ikasleei egotzitako kostuak: laguntza lotua	1.508,99	% 57,04
G	Beste item batzuetan sartu gabeko administrazio-gastuak	38,91	% 1,47
H	Bestelako dohaintzak	348,54	% 13,17
H01	Gizartea garapenaren gaiari buruz sentsibilizatzea	60,02	% 2,27
H02-H03-H04-H05	Herrialde emailetako errefuxiatuekin/asilo-eskatzaileekin lotutako kostuak	288,52	% 10,91
	Guztira	2.645,49	% 100,00

Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

* Letra lodiz idatzitako lerroek multzokatutako tresna nagusiak jasotzen dituzte, letra lodiz nabarmendu gabeko kopuruak talde horietako kasu zehatz batzuk adierazten dituzte.

Ikasleen bekak eta gastuak dira tresna nagusia nazioarte mailan (1.545 milioi dolarretik gora). Hemen, ikasleei egotzitako kostuak nabarmentzen dira, bereziki Alemaniaren kasuan (1.475,80 milioi).

Kostu horiek hartzen dute aspalditik estatu federatuek (alemanez Länder deritzonak) GLOri egindako ekarpenen gehiena. Haien zenbatekoa ehunekoetan handituz joan zen XXI. mendearen lehen hamarkadan, 2000. urtean Alemaniako guztizko GLO deszentralizatuaren % 86 izatetik % 94 izatera igaro baitzen 2009an (Maier, 2012). Horrenbestez, joera finkatua erakusten dute 2019ko datuek.

Egotzitako kostuak kalkulatzeko, unibertsitateko karreraren eta bertan dauden ikasleen kopuruaren arabera zatitzen da unibertsitatearen aurrekontua (normalean matrikulak doakoak dira, eta, beraz, kostu inplizitua da). Hala, ikasleen kostuek ez dute gastu gehigarriarik edo transferentziarik sortzen, egotzitako gastua baizik, estatu federatuek GLO⁸ gisa zenbatzen dutena (Maier, 2012).

Tresna horrek, azken batean, CONCORD (Europako GGKEen koordinakundea) bezalako erakundeek “laguntza puztutzat” jotzen dituzten beste kontzeptu batzuk ekartzen ditu gogora, zor-eragiketa jakin batzuekin edo herrialde emailean errefuxiatuek eta asiloak duten kostuarekin lotuta dagoenaren antzera (288,52 milioi dolar, gutzitzkoaren % 10,91). Jarduera horiek interesgarriak edo beharrezkoak izan daitezke sozialki, baina ez datoz gutziz bat GLOren ohiko kontzeptuarekin.

Praktika horietatik haratago, proiektua da tresnarik ohikoena (548 milioi, % 20,72). GLBren ikuspegiaren arabera, denboran mugatutako jarduerak eta emaitzak dira, eta alde aurretik zehaztutako helburuak, eremu geografikoa eta aurrekontua dituzte. Askotan, erakunde publikoek konkurrentzia-prozesuetan finantzatzen dituzte proiektu horiek, baina zuzenean ere eman daitezke, hitzarmenen bidez, edo administrazioek ere gauzatu ditzakete formatu horretan. Planteamendu horrek dituen abantailen aurrean, helburu zehatzetara (normalean egiaztagarriak) zuzentzeari dagokionez, aipatu behar da batzuetan oso esparru zurruna ere badela epe luzeko arazoei aurre egiteko.

8 Praktika horrek kritikak izan ditu GKEen, Alemaniako eta nazioarteko adituen, eta ELGEren aldetik ere. ELGEk berak 2006an Alemaniako GLOri buruz egindako txostenean adierazi zuen horrelako gastuek ez dutela zuzenean laguntzen garapenean dauden herrialdeetako hezkuntza-sistemak hobetzen, eta oso eragin txikia dutela herrialde horietako hezkuntza-sektorean gaitasunak indartzeko (Maier, 2012). Horren harira, Rossiter eta Hares (2022) egileek ohartarazi dute oso ebidentzia gutxi sortu dela jarduera horien eraginari buruz, eta, nazioarteko migrazioak edo jatorrizko herrialdeetako hezkuntzaren hobekuntzak ekar ditzaketen onurei buruz nahikoa dakigun arren, oso gutxi dakigu beke garapenerako tresna gisa duten potentzialari buruz. Egile horiek agerian utzi dituzte laguntza mota horrekin loturik identifikatutako zenbait arazo. Lehenik eta behin, azpimarratu dute, zenbaketa globala kontuan hartuta, oso kopuru handiak bideratzen zaizkiela oso gizabanako gutxiri, askotan diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeetatik edo beren jatorrizko herrialdeetako ingurune aberatsenetatik datozei, eta, gainera, gizonak direla horrelako beka jasotzeko aukera handienak dituztenak. Bigarrenik, adierazi dute horrelako beken ondorioz graduatuek jatorrizko herrialdeetatik migratu egiten dutela (herrialde anfitrioiaren geratzen dira askotan), eta, nahiz eta hezkuntza-migrazioak sortzeri mesede handia egin diezaiokeen diru-bidalketen bidez, herrialde anfitrioiari ere mesede handia egiten dio, graduatuak bekaren ondoren bertan geratzen badira.

Lan-aukera malguenak, hala nola aurrekontu-laguntzak edo proiektuekin lotuta ez dauden erakundeei egindako ekarpenak, zenbateko txikiagoak dituzte (67 milioi baino gehixeago guztiak batera hartuta), baina nolabaiteko garrantzia dute Belgikarena bezalako kasuetan (aurrekontu-laguntzarako tresnaren berri ematen duen kasu bakarra).


Laguntza teknikoa, berriz, 96 milioirekin, gutxietsia dago agian, egoztea zaila delako. Alor horretan ekarpen garrantzitsuak egin ditzake GLDk, lurraldean dauden gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak aprobetxatzeko, bere eskumen-esparrutik hurbil dauden gaitan (hirigintza, ura eta saneamendua...). Alde horretatik, interesgarriak izan daitezke Frantzian edo Belgikan egiten diren praktikak, zenbateko garrantzitsuak baitituzte konparatiboki.

Bai tresnetan bai jarduera-sektoreetan (lotutako bi gai), herritartasun globalerako hezkuntzaren jarduerak antzematen dira. GLDrentzat garrantzitsua izan arren, arazotsua da GLBn sartzea. Tresnei dagokionez, H01 kodean sailkatu dira, “Bestelako dohaintzak” atalean, eta 60 milioi dolar izan ziren 2019an (guztizkoaren % 2,27), nahiz eta horien pisua handiagoa izan Espainiakoa bezalako kasuetan.

Bideratze-moduekin gertatzen zen bezala, baterako irudiak, egia esan, eredu oso desberdinak ezkututzen ditu, herrialdeen arabera, tresnen erabilerari dagokionez.

3. irudian ikus daitekeen bezala, ikasleen bekak eta gastuak dira Alemanian tresna garrantzitsu bakarra, GLBren arabera.

Frantzian, babeslekuari eta asiloari lotutako kostuak dira nagusi lurralde frantsesean (% 58 baino gehiago), baina proiektuen erabilerarekin (% 24) eta laguntza teknikoarekin konbinatzen dira (% 11 ia, kasu garrantzitsuena erlatiboki). Azken tresna horrek garrantzia du Frantziako lurralde-kolektibitateek finantza-mekanismo bat dutelako (2005eko Oudin-Santini legeari esker), aukera ematen diena sektore oso zehatzetan (ura eta saneamendua, energia, hondakinak eta mugikortasuna eta garraioa) aurrekontuan jasotakoaren % 1 gehienez erabiltzeko aldeko lankidetzak ekintzetarako.



Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

Kanadan ere nagusi dira errefuxiatuei eta asiloari lotutako tresnak (guztizkoaren % 53 baino gehiago), eta, ikasleen kostu egotziei batuta, % 61 baino gehiago dira. Proiektuek funtsen % 21,45 hartzen dute, eta laguntza teknikoek, % 9.

Espainiaren kasuan, proiektuak dira nagusi argi eta garbi (ia % 80), eta, ondoren, “Bestelako dohaintzak” tresna dago; kasu honetan, ez da babes-kontuetan oinarritzen (% 1,56), lehen aipatutako H01 tresnan baizik (Garapenaren gaiari buruzko gizarte-sentsibilizazioa), % 11,30eko pisuarekin. Hemen sartzen dira GGKEek, erakunde publikoek eta beste eragile batzuek ezarritako askotariko jarduerak.

Belgikako GLO deszentralizatuak proiektuak erabiltzen ditu tresna nagusi gisa, guztizkoaren ia erdia hartzen baitute horiek. Nabarmentzekoa da asko erabiltzen dela aurrekontuetarako edo ekarpenetarako laguntza orokorra, jarduera zehatzei hain loturik ez dagoen tresna, guztizkoaren % 34 baino gehiago baita. Flandriaren

kasuan erabiltzen da, eta gehiena (18 milioi 26tik) unibertsitateei laguntzeko izaten da, baina era askotako alde anitzeko ekarpenak ere jasotzen ditu (5,87 milioi), bai eta Belgikako GGKEei egiten zaizkienak ere (2,32 milioi). Gainerako tresnen artean, nahiko nabarmena da laguntza teknikoa, beste kasu batzuetan hutsala dena, guztizkoaren ia % 8 baita kasu honetan. Zenbateko txikiagoekin bada ere, Aurrekontu-laguntza tresna erabiltzen duen herrialde bakarra da (funtzen % 2,92). Kasu honetan, herritartasun globalerako hezkuntzara bideratutako ekimenek osatzen dute “Bestelako dohaintzak” atala (% 1,88).

3.5. Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren jardueraren sektoreak

Lehen ikusi dugun bezala, GLDK zenbait berezitasun ditu, eta horiek hainbat sektoretan lan egiteko potentzialtasuna isla dezakete. Hemen sartuko lirateke udal-kudeaketarekin lotutako sektoreak eta askotan deszentralizatuak diren eskumenak, hala nola hezkuntza, garraioa, etxebizitza, hirigintza, etab. Oro har, espero da lankidetzaren deszentralizazioa erabilgarria izatea deszentralizazio administratiboko prozesuetan, hainbat sektore har baititzake. Herritartasun globalerako hezkuntzaren esparruko ekintzak ere sektore interesgarria izan daitezke, praktika horiek herritarrengandik hurbil daudelako eta gizartearen parte-hartze zabala izan dezaketelako.

Praktikan potentzialtasun horien aprobetxamendua egiaztatzeko, informazio agregatuaren bat eskainiko dugu ondoren. Aurreko kasuetan bezala, eta dituen mugak kontuan hartuta, erabilgarria da GLBren GLOren ikuspegitik abiatzea, funtsezko sektore batzuen irudi bateratua eta konparagarria izateko.

4. taulan ikus daitekeen bezala, eta ekimenak sektoreka sailkatzeko GLBko talde handiei erreparatuta, Azpiegitura sozialak eta zerbitzuek 1.887 milioi dolar baino gehiago hartzen dituzte (guztizkoaren % 71,35). Zenbateko hori Bigarren hezkuntzaren osteko jarduerak markatzen dute, guztizkoaren % 57,76 (kasu horretan, Alemaniak % 97 azaldu du). Gainerako epigrafeak, Azpiegitura sozialak eta zerbitzuen barruan, guztizkoaren % 13,59 dira. Hor sartzen dira tradizioz lankidetzarekin eta oinarritzko zerbitzuekin lotutako sektoreak, hala nola Gobernu eta gizarte zibila, Osasuna, Bigarren hezkuntzaren ondokoa ez den hezkuntza edo Ura eta saneamendua.

4. taula*. GLO deszentralizatu, GLB sektoreen arabera (2019)			
Sektoreak	GLB sektoreen kodeak	Milioika dolar (grant equivalent)	Ehunekoak guttizkoarekiko
Azpiegitura sozialak eta zerbitzuak	100	1.887,66	% 71,35
Hezkuntza (oinarrizkoa, bigarren hezkuntza eta ez zehaztua)	111, 112, 113	46,87	% 1,77
Bigarren hezkuntzaren ondokoa	114	1.528,01	% 57,76
Osasuna	121, 122, 123	77,68	% 2,94
Biztanleriari eta ugalketa-osasunari buruzko programak/politikak	130	21,29	% 0,80
Ur-hornidura eta saneamendua	140	43,76	% 1,65
Gobernua eta gizarte zibila	151, 152	145,28	% 5,49
Bestelako zerbitzu eta azpiegitura sozialak	160	24,77	% 0,94
Azpiegitura ekonomikoak eta zerbitzuak	200	15,74	% 0,59
Garraioa eta biltegiatzea, eta komunikazioak	210, 220	3,93	% 0,15
Energia sortuntza, banaketa eta eraginkortasuna	231, 232, 234, 236	5,27	% 0,20
Banku- eta finantza-zerbitzuak, enpresak eta bestelako zerbitzuak	240, 250	6,54	% 0,25
Ekoi-zerbitzuak	300: 311, 312, 313, 321, 322, 323, 331, 332	61,00	% 2,31
Sektore anitzekoak	400: 410, 430	221,11	% 8,36
Ondasunak hornitzeko laguntza eta programetarako laguntza orokorra	500: 510, 520, 530	3,77	% 0,14
Laguntza humanitarioa	700: 720, 730, 740	38,40	% 1,45
Emaileen administrazio-kostuak	910	38,88	% 1,47
Errefuxiatuei laguntza herrialde emailean	930	288,52	% 10,91
Zehaztu gabe / Sailkatu gabe	998	90,40	% 3,42
Garapenarekin lotutako arazoei buruzko sentsibilizazioa	99820	62,57	% 2,37
	Guztira	2.645,49	% 100,00

Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

* Letra lodiz idatzitako lerroek multzokatutako sektore nagusiak jasotzen dituzte, letra lodiz nabarmendu gabeko kopuruak talde horietako kasu zehatz batzuk adierazten dituzte.

Herrialde emalean errefuxiatuei ematen zaien laguntza ere zehazten da, 288,52 milioirekin (guztizkoaren % 10,91). Jarduera honek kritikak jaso izan ditu, lehen aipatu dugun bezala.

Sektore anitzeko ekimenek (% 8,36) ere zenbateko handia hartzen dute, ekoizpen-sektoreetara bideratutako aurretik.


GLDren berezitasunetako bat, lehen ere aipatu duguna, herritarrekin egiten duen lana da, eta GLBren esparruan hori ez dago oso argi. Esan bezala, jarduera horiek “Bestelako dohaintzak” ataleko tresna gisa agertzen dira neurri batean, eta modu osoagoan “Zehaztu gabe/sailkatu gabe” atalean, sektoreen sailkapenean. Zehazki, 99820 kodea dute (Garapenarekin lotutako arazoei buruzko sentsibilizazioa). Kode horrek gizarte-sentsibilizazioko H01 tresnarekin egindako jarduerak biltzen ditu batez ere, lehen aipatu bezala, baina baita beste batzuk ere proiektu gisa katalogatutako tresnekin (C01) edo, neurri txikiagoan, laguntza tekniko gisa edo ekarpen orokor gisa katalogatutakoekin ere. Guztira 62,57 milioi dira (guztizkoaren % 2,37).

Azkenik, ekintza humanitarioaren presentzia txikia egiaztatu da (% 1,45), GLO globalen joeren aldean (% 14 GLBko herrialdeetan 2019an). Lankidetzaren deszentralizatuak baliabide mugatuak ditu eremu honetan jarduteko baina, gai honetan ere, bada eztabaidarik.

Alde batera utzita ikasleei egotzitako kostuak, Bigarren hezkuntzaren ondoko sektorean kontabilizatuta, eta Errefuxiatuentzako laguntza herrialde emalean, gainerako sektoreen arabera funtsak nola banatzen diren adierazten digu ondoko irudiak (4. irudia).

Jarduera-mota horietarako eredu ezagunagoa ageri da 4. irudian, askotariko sektoreekin, (Sektore anitzekoak) barne, baina nolabaiteko protagonismoa dute honako hauekin zerikusia dutenek ere: Gobernua eta gizarte zibila, Hezkuntza, Osasuna (biztanleria eta ugalketa-osasuna barne), Ekoizpen-sektoreak, Bestelako azpiegitura sozialak eta zerbitzuak, eta Ura eta saneamendua.

4. irudia. GLO deszentralizatuaren fluxuak sektoreen arabera, ikasleei egotzitako kostuak eta herrialde emailetan errefuxiatuei ematen zaien laguntza kenduta (2019)



Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

Herrialdeka, eta berriz ere irudi globalera itzuliz (beraz, ikasleen eta errefuxiatuen kontuak barne), alde handiak ageri dira. Alemanian, esate baterako, lehen aipatutako ikasleen kostu egotzien ondorioz, funtsen % 97 baino gehiago hartzen du hezkuntza-sektoreak, eta tarte txikia uzten die beste alderdi batzuei.

Kanadan, herrialde emaileen errefuxiatuei ematen zaien laguntza da nagusi (% 53,35), eta, ondoren, sektore anitzeko fluxuak (% 20,70). Horietan sartzen dira, besteak beste, ikasleen kostuak eta bekak, “Sektore anitzekoak: hezkuntza eta gaikuntza” atalean sailkatuak. Azpiegitura sozialen eta zerbitzuen atalean (% 13,61), Gobernua eta gizarte zibilaren ekimenak nabarmentzen dira (% 14,72, guztizkoaren % 4,26), bai eta Osasunekoak ere 13,88 milioirekin (guztizkoaren % 4, eta hori % 5,67ra igotzen da Biztanleria eta Ugalketa-osasunaren politikak gehitzen bazaizkio). Beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, ia ez dago lekurik Ekintza humanitarioarentzat (% 0,02), eta oso txikia da Herritartasun globalerako hezkuntzan islatutako lana ere (jarduera bakan batzuk, guztizkoaren % 0,34 osatzen dutenak).

Espanian, Azpiegitura sozialak eta zerbitzuak dira nagusi (funtsen % 43,80). Horietan sartzen dira Gobernua eta gizarte zibilarekin, Hezkuntzarekin, Osasunarekin edo

Urarekin lotutako jarduerak, ordena horretan. “Sektore anitzekoak” izenekoaren presentzia handiak (gutzitzkoaren % 24,39) adierazten du, halaber, izaera zabala dutela eta zaila dela proiektu asko sektore bakar batean sailkatzea. Nabarmentzekoa da “Garapenarekin lotutako arazoei buruzko sentsibilizazioa”, oso azpisektore adierazgarria baita; Espainiaren kasuan, % 11,97 da. Era berean, eta zenbateko txikiagoa izan arren (% 6,22), Laguntza humanitarioak presentzia nabarmena du, beste herrialde batzuetako GLO deszentralitatuan ageri dena baino handiagoa.

Frantzian, bere tresnetan islatu den bezala, Errefuxiatuei herrialde emailean ematen zaien laguntza da nagusi (% 58), eta, ondoren, Azpiegitura sozialetarako eta zerbitzuetarako fluxuak (% 22). Horien artean nabarmentzen dira Ur-hornidurara eta saneamendura bideratutakoak (% 11,5). Lehen aipatu dugu 2005eko Oudin Santini legeak lurralde-kolektibitateek parte hartzeko ireki zuen lege-esparrua zenbait sektore jakinetan, hala nola, ura eta saneamendua, energia edo hondakinak. Hori da, adibidez, Parisko ingurabideko saneamendu-zerbitzu publikoa edo Ile de Franceko Uren Sindikatuaren kasua. Sektore espezifiko horietan jarduerak bilakaera desberdina izan dute 2006az geroztik; izan ere, hazkunde oso handiak izan dituzte Ura eta saneamenduan edo Energian, eta arrakasta txikiagoa, berriz, hondakinen kasuan. Garrantzitsua da egiaztatzea kolektibitateek beren funtsak modu desberdinean banatzen dituztela sektorearen arabera. Hala, errefuxiatuentzako funtsen % 80 Frantziako Gizarte Zibileko Erakundeen (GZE) bidez tramitatzen da, eta laguntza humanitaria, berriz, tokiko gobernuek eta herrialde elkartuetako GZEek eta Frantziako GZEek kudeatzen dute. Bestalde, Frantzian herritartasun globalerako hezkuntzarako eta atzerriko proiektu-motako esku-hartzeetarako funtsen % 75 Frantziako GZEek garatzen dute.

Belgikaren kasua interesgarria da bere fokalizazioagatik. Funtsak, batez ere, Azpiegitura sozialetarako eta zerbitzuetarako erabiltzen dira, eta nabarmentzekoak dira Osasunaren sektorea (funtsen % 27), sektore anitzetarako erabilera (%25,7), eta, azkenik, Ekoizpen-sektoreak, bereziki Nekazaritza (funtsen % 11,5). Sektore nagusi batzuk aurkitzen ditugun kasu bakanetakoa da. Sektorerik esleitu gabeko funtsen artean, herritartasun globalerako hezkuntzako zenbait jarduera aurki daitezke, 1,44 milioi gutzira (% 1,88).

3.6. Garapenerako lankidetza deszentralizatuaren orientazio geografikoa, funtsen banaketatik abiatuta

Kontu geografikoa GLDren arazoetako batekin lotu izan da tradizioz, eta sakabanatze-maila handia leporatu ohi zaio.

Egia esan, ez dago argi lankidetzaren hori tradizionala baino sakabanatuagoa denik, ezta hori oztupoa denik ere. Kasu askotan, epe luzerako harremanak mantentzen dira, denboran irauten duten kokalekuekin, eta erakunde finantzatzaile deszentralizatuen plangintzek ere, eta GKEek berek, jarraipena ematen diete ekintzei.

Gai horretan, beste batzuetan baino gehiago, ikusiko dugu GLOren ohiko ikuspegia eta haren kontabilizazioa ez direla oso erabilgarriak azterketarako, baina informazio interesgarria ematen dute herrialde batzuei dagokienez.


Lehenik eta behin, esan behar da GLBk jasotzen dituen GLO funts deszentralizatu gehienek ez dutela berez kanpo-helbururik, baizik eta herrialde emailean gauzatzen direla, Kaniak (2020) barne lankidetzaren deszentralizatu gisa sailkatzen duenaren barruan. Lankidetzaren horretan beren herritarrei zuzentzen zaizkie agente finantzatzaileak, edo herrialde elkartuetakoei, baina gastuak beren lurraldean izanda (bekak, etab.). Hala, 2019an, funtsen % 73 gai horiekin lotuta zeuden: errenta ertaineko eta txikiko herrialdeetako ikasleak herrialde emaileetako unibertsitateetan; herrialde emailean errefuxiatutako pertsonak; herritartasun globalerako hezkuntza-ekimenak; eta administrazio-kostuak (3. taula). Azken batean, funtsen % 27 baino zertxobait gutxiago izan zen aztertutako urtean errenta ertain eta txikiko herrialdeetara egindako transferentzia⁹. Alemaniako kasuaren eragin distorsionatzailea kontuan hartuta ere, deigarria da proportzio hori, eta badirudi indartu egiten duela GLO kontabilizatzeko sistemak berak eta haren ikuskerak ez dietela erantzuten lankidetzaren mota horren premiei eta logikari.

Erabilera zehatzei dagokienez, ikasleek markatzen dituzte horiek ere, haien kostuak GLO gisa egotzi baitira. GLBren datuek jatorrizko herrialdea kontabilizatzen dute funtsen helmuga gisa, eta, horregatik, Asia da xede nagusia, eta Txina eta India dira hartzaile nagusiak (munduko GLO deszentralizatuaren guztizko funtsen % 17,63 hartzen dute horiek biek).

Azterketa batean sakontzeko, erabaki da kanpo uztea ikasleei egotzitako kostuak, herrialde emailean errefuxiatuekin lotutakoak eta geografikoki zehaztu ez direnak. Horrenbestez, praktikan, guztizko funtsen % 21 baino pixka bat gutxiago zertarako erabiliko den aztertu da (5. irudia).

9 % 27 horren barruan sartzen da Langile adituak eta beste laguntza tekniko batzuen partida. Duen eragina eta balorazioa alde batera utzita, herrialde emaileko langileei egiten zaizkien ordainketak dira neurri handi batean, eta, horrenbestez, transferentzien kopurua are txikiagoa izan liteke.

5. irudia. GLO deszentralizatua kontinenteen arabera, ikasleei egotzitako kostuak, errefuxiatuenak, eta geografikoki esleitu gabeko funtsak kenduta (2019)




Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

Ikus daitekeenez, Afrika da, dugun informazioaren arabera, funtsen hartzaile nagusia (horien ia % 80 Saharaz hegoaldeko Afrikari dagozkio), ondoren Amerika (Hego Amerika eta Erdialdeko Amerika eta Karibe artean antzera banatzen dira) eta Asia. Europa (eta Ozeaniako zenbateko puntual bat) hondarreko hartzaileak dira.

Helmugei sarrera-mailaren arabera erreparatzen badiegu, eta ikasleentzako eta errefuxiatuentzako funtsak eta esleitu gabekoak edo informaziorik gabekoak bereizi ondoren, ikusiko dugu banaketa horretan funtsak errenta txikiko herrialdeetara bideratzen direla lehenik, eta, ondoren, diru-sarrera ertain-txikikoetara, eta, azkenik, diru-sarrera ertain-handikoetara. Nolanahi ere, herrialde hartzaileen diru-sarreraren arabera aurkitu ezin diren funtsen proportzio handiak baldintzatzen ditu datu horiek.

6. irudia. GLO deszentralizatuaren sarrera-mailen arabera, kasleei egotzitako kostuak, errefuxiatuenak eta geografikoki esleitu gabeko funtsak kenduta (2019)



Iturria: egileek sortua, ELGEren CRS-GLB datu-basetik abiatuta (2022).

Laginean jasotako herrialdeen kasuan, banaketa geografikoari erreparatzen badiogu, lehenik eta behin, ikusiko dugu, ikasleei eta errefuxiatuei egotzitako kostuekin eta zehaztu gabekoekin loturiko GLO baztertzeko badugu, Alemaniaren kasuak ez duela inolako interesik eskaintzen (gutzizkoaren %1,65 baino ez litzateke geratuko).

Gainerako kasuetan (Belgika, Espainia, Frantzia, Kanada), geografikoki aurkitu ezin diren funtsen proportzio handia egiaztatuta da lehendabizi. Belgikako eta Espainiako gutzizko funtsen % 42-43 artean daude horiek, % 60ra iristen dira Frantzian, eta % 73 baino gehiago dira Kanadan, azken bi kasu horietan babesaren/asiloaren arloko lana nagusitzearren ondorioz. Ehuneko horiek kontuan hartuta, pentsa daiteke informazio hori hobetu beharra dagoela, bai eta neurtzeko modu horien logika bera ere. Geroago itzuliko gara gai horretara.

Geografikoki koka daitezkeen zatian, herrialdeen kanpo-harremanekin eta harreman historikoekin lotuta daude funtsen erabilera nagusiak. Hala, Espainiaren kasuan, Latinoamerikako herrialdeak daude, Maroko edo Palestina bezalako beste batzuekin batera, nahiz eta Saharaz hegoaldeko Afrikara funtsen proportzio handia bideratzen den. Frantzian eta Belgikan argia da Saharaz hegoaldeko Afrikaren nagusitasuna (gutzizkoaren % 21 eta % 45, hurrenez hurren), haren lehentasunez eta plangintzari erantzunez. Kanadaren kasuan ere Afrika da hartzaile nagusia (% 14,43; kopuru hori handia da hartzaile jakinik gabeko funtsen ehuneko handia dela eta). Funtsen

sakabanatze-mailaren adierazle gisa, lehenengo 10 herrialde hartzaileek ehuneko handi samarrak dituzte Belgikan edo Espainian, funtsen % 39 eta % 32 baino gehiago biltzen baitituzte, hurrenez hurren. Frantziaren kasuan, % 20ra jaisten da ehunekoa, eta % 6tik beherakoa da Kanadan (kontuan izan ehuneko horiek guztizko funtsen gainean kalkulatu direla, eta funts horien zati handi bat eskualde mailakoa edo zehaztu gabea dela).

3.7. Koordinazioa garapenerako lankidetzaren deszentralizazioan

Nolabaiteko koordinazio-maila lortzeko kezka komuna da lankidetzaren deszentralizazioan. Arazo hori bereziki garrantzitsua da gaur egungo testuinguruan, erronka globalek eragile eta maila anitzeko ikuspegia eskatzen baitute. Horrela, administrazio-ko beste maila batzuk eta toki edo sektore desberdinetan jarduera komunak izan ditzaketen beste erakunde batzuk kontuan hartuko dituen praktika garatu nahi da, praktiken arteko osagarritasunerantz aurrera egiteko.

Ildo horretatik doaz ELGEren GLBren parekideen berrikusketak (Peer Review) metodoaren gomendio batzuk aztertutako herrialdeetan. Kanadaren kasuan, 2003an, “koherentziari” buruzko eranskin berezi bat sartu zen, eta nazioarteko lankidetzarako elkarte bat sortu zela nabarmendu zuen, Kanadan lankidetzaz arduratzen diren 44 sailen eta agentzien arteko koordinazioa hobetu ahal izateko (elge, 2003). Alemaniako parekideen azken azterketan (ELGE, 2021) adierazi da, halaber, hobetzeko tarte handia dagoela Alemaniako lankidetzaren eragilearen arteko koordinazioan (GZE, estatu federatuak, udalerrak, gobernu federala), esperientzia eta elkarteak aprobeitzeko eta praktikak hobetu ahal izateko. Azken finean, dagoeneko lokalizatua dagoen kontua da, hainbat arazo sor ditzakeena eta berrikusi egin behar dena, Belgikako kasuan aipatzen den bezala (Waeterloos and Renard, 2013).

Gai horiei heltzeko, koordinazio-moduak askotarikoak dira aztertutako kasuetan. Ekimen horiek formalizazio-maila desberdinetan kokatzen dira, eragile instituzionalak eta gizarte zibilekoak barne hartuta.

Batzuetan, gobernu-maila desberdinak dituzten koordinazio-organismoak aurreikusi dira, gainjartzeak saihesteko eta gaitasun espezifikoak neurri hoberenean erabiltzeko. Esate baterako, Espainiako Lurraldearen Batzordea, Alemaniako Gobernuaren Garapenerako Lankidetzaren Batzordea eta estatu federatuak (Bund-Länder-Ausschuss Entwicklungszusammenarbeit), edo Frantziako Lankidetzaren Deszentralizaturako Batzorde Nazionala (Commission Nationale de la Coopération Décentralisée).

